

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.**IRAGARKIA**

Bilbao Ekintza, E.P.E.L. enpresan hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuko **lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioa eta bigarren ariketa egiteko eguna eta lekua.**

2023ko urtarrilaren 16an eta 2023ko otsailaren 2an egindako bileretan, arlo Juridikoko eta Kontratazioko teknikari lanpostu bat (derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza eskakizuna duena) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua epaitu behar duen epaimahaiak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan lehen ariketaren behin-behineko kalifikazioaren aurka.

Bigarrena.- Oposizioan GAI izan diren izangaiek **LEHENENGO ARIKETAN** lortutako **behin betiko kalifikazioa** onartzea eta argitaratzea, gutxienez 10,00 puntu lortu dituztelako eta deialdiaren oinarrietan jasotako ariketako probak gainditu dituztelako. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa, eta egindako probaren batean EZ GAITZAT jo direnak kanporatuta geratu dira.

Hirugarrena.- Lehenengo ariketan GAI suertatu diren pertsoneri **dei egiten** zaie oposizio-faseko **bigarren ariketa (kasu praktikoa) egin** dezaten. Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzailea izango da, jarraian adierazten den egunean, orduan eta lekuan, NANA aurkeztu beharko dute, baita idazteko tresnak ere:

Eguna: **osteguna, 2023ko otsailaren 16a**

Ordua: **9:45**

Lekua: **Turismo Bulegoa** (beheko solairua), Plaza Circular 1, 48001 Bilbo, ate nagusiko sarbidetik.

Laugarrena.- Lehenengo ariketan GAI deklaratu diren izangaiei **jakinarazten zaie** bigarren ariketaren edukia eta zuzentzeko irizpideak (kasu praktikoa) honako hauek izango direla:

- a) Idatziz eta gehienez ere bi orduz, epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bati buruzko ebazpen-proposamena duen txosten bat egin beharko da.
- b) Zuzentzeko irizpideak: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, ondorioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika, araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea, eta ezarritako helburuak lortzeko erdiesteko prozedura egokiak ezagutzea baloratuko dira funtsean.
- c) Gehienez ere 30 puntuz baloratuko da, eta nahitaez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- d) Zuzenketa anonimoa izango da, pliken sistemaren bidez, eta izangaia ariketa kalifikatu ondoren identifikatuko dira.
- e) Ariketa egiteko, epaimahaiak izangaien eskura jarriko du deialdiari erantsitako gai-zerrendarekin zerikusia duen araudia.

Bilbon, 2023ko otsailaren 2a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE

Lehenengo Ariketako behin betiko kalifikazioak

BE2018-0001
ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE JURÍDICO Y CONTRATACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo atala Primera parte	Bigarren atala Segunda parte	Guztira Total	
*889***8C	ALBERDI	LOPEZ	LANDER	7,84	2,60	10,44	EZ GAI
*900***7H	BILBAO	ARETXAGA	OIER	5,59	1,40	6,99	EZ GAI
*066***8M	FORTES	MONTILLA	CARMEN	10,00	5,10	15,10	GAI
*066***1B	GONZALEZ	LANDA	AINHOA	10,00	2,15	12,15	EZ GAI
*895***2Y	HERRAN	REINO	AINHOA	9,69	0,00	9,69	EZ GAI
*609***6J	IRASTORZA	GOMEZ	LEIRE	8,00	5,50	13,50	GAI
*895***9J	LAFRAYA	SIERRA	MARTA	5,44	0,85	6,29	EZ GAI
*900***3L	PEREZ	ALBAINA	ZIORTZA	7,81	0,00	7,81	EZ GAI
*894***7W	URRESTARAZU	BARCENA	MARIA	8,94	9,50	18,44	GAI
*455***2X	ZABALETA	MUNDUATE	UNAI	8,37	0,25	8,62	EZ GAI